



**Arartekoaren 2020R-2480-17 Ebazpena, 2020ko uztailaren 8koa; haren bidez Eusko Jaurlaritzako enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio oker jasotako prestazio batzuk itzuli behar direla ebatzi eta ordainketa zatikatua erabakitzen duen ebazpena berraztertzeko, uste duelako Lanbide -Enplegurako Euskal Zerbitzuak erantzukizuna izan duela zorraren sorreran.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat aurkeztu dio Arartekoari. Haren xedea 20.226,35 euroko erreklamazio bat da, 2014ko uztailetik 2017ko otsailera bitartean oker jasotako prestazio ekonomikoengatik eta zorra hilerok erreklamatzeko zioten baino ehuneko txikiagoan itzultzeari uko egiteagatik.

2017ko martxoaren 24an, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta bat jasotzeko eskubidea etetea erabaki zuen: *“Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak ez jakinaraztea, sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean”*.

Halaber, data horretan Lanbidek prestazioak erreklamatzeko prozedura abiatzea erabaki zuen, 20.226,35€ eskatuz. 2017ko abuztuaren 31ko ebazpenaren bidez, ebatzi zuen erreklamaziogileak kopuru hori itzuli behar zuela, zegokion diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa kalkulatzeko unean zenbatu ez ziren sarrerak eskuratzeagatik, mantenu-pentsioagatik eta osabidezko pensioagatik. Gainera, hilean 270,58€ kenduko ziola, zorra osorik ordaindu arte. Kopuru hori batere baliabiderik ez balego, bere bizikidetzaren unitateko pertsona kopuru osoaren arabera legokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 30i dagokio. Halaber, ebazpenean esaten da ehuneko hori itzultzeko espedienteari aplikatu dakiokeen aldekoena dela.

2017ko irailaren 14an aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen erreklamaziogileak. Errekurtso-idazkian alegatu zuen zegokion dokumentazio judiziala aurkeztu zuela, eta horrek espedientearen lehenago berraztertzea ahalbidetuko zukeela. Halaber, bere alegazioetan esan zuen sortutako zorra itzultzeko aplikatzen ari zitzaizkion ehunekoaren, % 30, oso handia zela. Errekurtso-idazkian, azpimarratu zuen kuota hori proportzionaltasun-printzipioaren kontrakoa zela, garaiz eta arduraz jokatu zuenean, diru-sarrerak bermatzeko errentarako jasotzen zuten zenbatekoan eta aplikatzen ari zitzaizkion deskontuak gizarte egoera larrian uzten zuela eta gizarteratzeko ibilbidea oztopatzen ziola.

Aukerako berraztertze errekurtso hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2017ko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez ezetsi zioten (2017ko abuztuaren 31ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren





ebazpenaren kontra 2017ko irailaren 14an aurkeztutako errekurtsua ezesten duen Ebazpena).

Errekurtsoaren ebazpenak adierazten duen prestazioak erreklamatzeko prozeduraren hasiera-data okerra da; izan ere, prestazioak erreklamatzeko prozeduraren data eta itzultzeko betebeharra ebaztekoarena berbera dira bertan, 2017ko abuztuaren 31.

Honela arrazoitu da (zuzenbideko oinarri berezienei dagokienez) oker jasotako prestazio ekonomikoengatik 20.226,35€ itzultzeko betebeharra ebazten duen ebazpenaren aurkako aukerako berraztertzeke errekurtsua ezesteko ebazpena:

*“TERCERO.- Visto el recurso presentado y la documentación obrante en el expediente se constata que este recurso se interpone contra un procedimiento de reintegro de cobros indebidos (REI). Los REI tienen origen en un procedimiento previo, siendo en este caso el procedimiento 2017/REV/XXX. La citada Revisión (REV) tendría que ser recurrida por la interesada cuando le fue notificada la resolución 2017/REV/XXX, no cuando se le ha notificado la revisión 2017/REI/012337.*

*El REI, entonces, no es más que una continuación -una suerte de ejecución si se quiere- de la Revisión firme. Por tanto, no cabe alegar de nuevo motivos de fondo, porque los mismos tendrían que ser alegadas en un recurso de reposición contra la resolución 2017/REV/XXX.*

*El REI no puede convertirse en una segunda instancia administrativa para actos que tendrían que ser recurridas en otras instancias administrativas.*

*Por otra parte, evaluado la documentación obrante, se constata que el reintegro recurrido es ajustado a derecho, tanto en el fondo como en la forma, por lo que según el artículo 56 del decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos, si como consecuencia de un procedimiento de modificación, suspensión o extinción, o por cualquier otra circunstancia, se comprobara la percepción indebida de la Renta de Garantía de Ingresos, se establecerá la obligación de reintegro por parte de la persona titular, en este caso (...), de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida, como sucede en este Caso.”*

Intereseko datu gisa, erreklamaziogilea, genero-indarkeriaren biktima izan zen 2014an. Auzibideko kautela-neurriak 2014ko maiatzaren 14an eman ziren, eta data horretan diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa eskatu zen, ardurapeko adingabe bi dauzkan bizikidetz-unitate gisa.





2016ko maiatzaren 25ean (2016/(...) erregistro-zenbakia), zigor-arloko epaitegiaren dokumentazioa aurkeztu zuen Lanbideko bulegoan, erabakitako neurri judizialei buruz.

2016ko ekainaren 6an diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko dokumentazioa aurkeztu zuenean, diru-sarrerak bermatzeko errenta prestazioa berritzeko eskabideari erantsi zion zinpeko deklarazioan, esan zuen 700€ jasotzen zuela hilean mantenu-pentsioagatik. Urtebete geroago, 2017ko ekainaren 19an, Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea berritzea erabaki zuen.

Urtarrilaren 4an, erreklamaziogileak jakinarazi zuen lan egingo zuela (2017/(...) erregistro zenbakia), 2017ko urtarrilaren 16an (2017/(...) erregistro-zenbakia) lan kontratua erantsi zuen, 2017ko otsailaren 13an urtarrileko nomina eta jarduera uzteko karta aurkeztu zituen (2017/(...) erregistro-zenbakia). Geroago, 2017ko otsailaren 23an, dokumentazio bat aurkeztu zuen. Ez dago zehaztuta, baina Lanbideren egiaztatgiriaren esaten da 2017/REV/XXX izapidetzeari eragiten diola.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu ondoren, laguntza eskatu zion Lanbideri, kexak hizpide dituen gertaeren gaineko informazioa bidal zezan. Hau jakin nahi zuen, hain zuzen ere:

- a) Zorra sortu duten kontzeptuen azalpen zehatza.
- b) Zorra kitatzeko hileror ordaindu beharreko kuotaren deskontuaren eskaera zergatik ez den onartu azaltzea, 1/2015 Zirkularrak, bidegabe jasotako prestazioen ordainketa baldintzak zehazten dituenak, aurreikusten duen bezala.
- c) Adingabea kontuan hartzearen pisuak zorrari aurre egiteko hileroko kantitatea gutxitzea baliozta ote dezakeen.
- d) Burututako edo burutzeko asmoa duen eginbideak argitzea kexagileari behar bezala erantzuteko.

3. Lanbideko bertako zuzendari nagusiaren txostenaren bidez erantzun du. Erantzun-idazkian azaltzen du erreklamaziogilea diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra zela 2014ko maiatzetik. 2014ko ekainaren 12an salaketa-akta aurkeztu zuen instrukzio-epaitegian urruntze-agindua urratzeagatik eta mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik.

Jasotako txostenaren arabera: *"2016ko maiatzean erregistroan adierazi zuen bikote ohiak hilabete batzuetan pensioa pasatzen ziola eta beste batzuetan ez, baina ez zuen formalki deklaratu (ez zenbat, ez eta zenbatetan ere). Izan ere, gai honi buruz dugun azken berria 2014an pensioa ez ordaintzearen egindako salaketa bat da, baina ordutik ez zuen beste ezer komunikatu gai honen inguruan."*





Gehitzen duenez, 2016ko ekainaren 6an aurkeztutako berritzeko dokumentazioaren artean, bere diru-sarreraren zinpeko deklarazioan, lehen aldiz agertu zen 700 euro kobratzen zuela mantenu-pentsiotik: *“Dokumentazio hori izapidetzean (2017/REV/XXX), 2017ko otsailaren 6an, entzunaldi-izapide bate gin zitzean, MANTENU-PENTSIOARI ETA PENTSIO KONPENSATZAILEARI DAGOZKION DIRU-SARREREN BERRI EZ EMATEAGATIK.*

*2017ko otsailaren 14ean alegazioak aurkeztu zituen, baina ez ziren aintzat hartu; izan ere titularrak jakinarazi duela dio, baina epaia 2015eko maiatzaren 20koa da eta dibortzioari dagokion dokumentazioari buruzko azken erregistroa 2014koa da, eta ordutik ez da ezer aurkeztu. Prestazioa eten egin zen hilabete horretan, eta 20.226,35 euroko kobrantza bidegabeak sortu ziren, deklaratu gabeko diru-sarrerak zirela-eta, 2014/07/01 eta 2017/02/28 bitartean.*

Amaitzeko, txostenak zorraren erreklamazioa berresten du, mantenu-pentsioagatik eta osabidezko pentsioagatik aitortu gabeko diru-sarrerengatik: *“2018ko uztailearen 20an, lan kontratu baten berri eman zuenez, berrikuspen bat (2018/REV/YYYY) jarri zen martxan, eta entzunaldi-izapide berri bat ireki zitzean, ez baitzuen komunikatu langabezia-sorospena kobratu izana 2017/10/07tik 2018/05/27ra bitartean. Beraz beste 3.000 euro kobratu zituen, bidegabeki.”*

4. Lanbideren erantzuna ezagutu ondoren, erreklamazioak alegatu du, Lanbideko bulegoan jakinarazi ziotenez, ez zuela jakinarazi behar sorospena jasotzen zuela, hori Lanbideren eta Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren (SPEE) artean komunikatzen zelako eta, beraz uste zuela ez zela beharrezkoa langabezia-sorospena jasotzen zuela jakinaraztea.

### Gogoetak

1. Lehenik, ebazpen honetan prestazio okerrak egotearen errealitatea, erreklamazioaren jokabidea eta zorra kopuru hain handian sortzea bereiziko dira.

Erreklamaziogileak prestazio ekonomikoak jaso ditu 2014ko uztailetik 2017ra bitartean, urtebetez bere ezkontide ohiarengandik jaso zuen osabidezko pentsioa eta emakumeak bere ardurapean dauzkan seme biengatik aitak ordaintzen zion mantenu-pentsioa zenbatu gabe. Hori dela-eta, zor oso handia sortu da, 20.226,35€, oker jasotako prestazio ekonomikoengatik. Zor horri 2017ko urritik 2018ko uztaile bitartean sortutako zorrari dagokiona gehitzen zaiok 3.070,74€, epe horretan jaso zituen diru-sarreraren artean, onuradun zen langabezia-sorospeneko prestazioa kontuan hartu ez zelako eta, beraz, beste zor bat sortu zen.





Bizikidetza unitateen jasotzen dituzten hileko etekinak kontuan hartu behar dira diru-sarrerak bermatzeko errentagatik ordaindu behar den kopurua zenbateostean. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (147/2010 Dekretua, diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 13 artikulua honako hau xedatzen du: *“Bizikidetza-unitate bakoitzari aplika dakioken prestazioaren hileko zenbatekoa honen arabera kalkulatu da: eskatzailearen bizikidetza-unitatearen ezaugarriak dituzten bizikidetza-unitateentzat prestazioak bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoaren eta eskatzailearen bizikidetza-unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentziaren arabera.”*

Ondorioz, bizikidetza unitateak jasotzen dituen diru-sarrerak zenbatu behar dira, 147/2010 Dekretuaren III. kapituluaren (“Araubide ekonomikoa”) aurreikusitako araudia aplikatuz. Xedapen horiek kontuan hartuta, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak gainditzen dituzten baliabide ekonomikoak dauzkaten bizikidetza unitateei prestazio ekonomikoak ordaintzen bazaizkie, **kopuru horiek itzuli egin behar dira**, dagokion administrazio-prozeduraren ondoren, 147:2010 Dekretuaren 56. artikuluko 2. paragrafoa aplikatuz: *“Dekretu honetako 31. artikuluan aipatzen diren baliabideei eta laguntzei –diruz ordaintzekoei– dagozkien atzerapenak ordaintzea erabaki eta gero, diru-sarrerak bermatzeko errenta titularrak behar ez bezala edo behar baino kopuru handiagoan eskuratu duela ikusten baldin bada, kopuru horiek itzultzeko betebeharra izango du, aurreko paragrafoan aipatzen den modu berean.”*

Halako moldez non, bizikidetza unitateak geroago diru-sarrerak bermatzeko errenta (oker) jaso zenaren aurreko aldi bati egotzi behar zaizkion diru-sarrerak jasotzen baditu, kontuan hartu behar diren eta, dagozkion administrazio-izapideen ondoren, jasotako prestazio ekonomikoak itzultzea erabaki behar den, erreklamazio-ekintza iraungi ez bada.

Erreklamaziogileak, beraz, prestazio ekonomiko okerrak jaso ditu eta, **beraz, itzuli behar ditu, ez baitago diharduen iraungipenik.**

Ebazpen honen xedea, beraz, ez da zorra egokia den aztertzea, zuzenbidearen araberakoa baita, **ezpada zor den kopurua itzuli beharra ebatzi duen ebazpenak jasotzen duen deskontu-ehunekoa.**

Argitu behar da zorra Lanbideak aplikatu baino ehuneko txikiagoan zatikatu daitekeen, adingabearen interes gorena eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren administrazio-espeditatea biltzen duten administrazio-jarduketak eta -izapideak kontuan hartuz.

Puntu hauetan, Arartekoak xehetasunez aztertu ditu alderdi horiek, enplegu-erakunde autonomoaren jarduketari heltzean eragina dutela balioesteko.





2. Lanbidek ez du diru-sarrerak bermatzeko espedientea berraztertu 2014an prestazioa onartu zitzaionetik 2017an hura berraztertzeko eskatu zen arte. Arartekoaren ustez, zor handia sortzea erraztu du horrek, eta ondorio oso larriak dakarzkie gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsoneri; hortaz, Arartekoak askotan esan du zein garrantzitsua den **zor handiak sortzea ekiditeko mekanismoak eta barne-protokoloak ezartzea, gizarteratzeko ibilbidean duten eraginagatik.**

Erreklamaziogileak zenbaitetan jakinarazi zuen prestazioak jasotzen zituela (osabidezkoa eta mantenukoa hasieran eta, gerora, bere seme-alabentzako mantenukoa bakarrik), eta horrek ez du eraman haren espedientea berraztertzeraz 2017a arte, zor oso handia sorraraziz. 2016ko maiatzaren 25ean zigor-arloko epaitegiaren dokumentazioa aurkeztu zuen, erabakitako neurri judizialei buruz. 2016ko ekainaren 6an, diru-sarrerak bermatzeko errentako prestazioa berritzeko eskabidean, zinpeko deklarazio bat aurkeztu zuen, hilean mantenu-pentsioagatik 700€ jasotzen zuela zehaztuz. Arartekoaren ustez, aintzat hartu beharko zen dokumentazio hori aurkeztu izana familiaren interesentzat zorraren zatikatze hobea erabakitzeko.

3. Arartekoak informazioa eskatu zion Lanbideri erreklamaziogileak egindako eskaera, zorra ordaintzeko hileroko konpentsatu beharreko kuotan, oker jasotako prestazioen itzultzeraz baldintzak zehazteari buruzko 1/2015 zirkularrak aurreikusten duenez, deskontu bat egitekoa, ez onartzeko zioei buruz. Arartekoari bidalitako txostenean, Lanbidek ez dio galdera horri erantzun.

Arartekoaren iritziz, aukera zegoen aplikatu beharreko araudia kontuan hartuz sortutako zorra itzultzeko ehuneko aldekoagoa aplikatzeko. 147/2010 Dekretuaren 57. artikulua 5. paragrafoan xedatzen duenez, egin beharreko konpentsazioak edo murrizketak ezin da izan diru-sarrerak bermatzeko errentagatik gehienez ere eskuratuko luketenaren % 30 baino handiagoa, betiere inolako baliabiderik ez dagoen kasuan, eta bizikidetzaz unitatean zenbat kide diren kontuan izanik. Ondorioz, araudiak aplikatu dena baino ehuneko txikiagoa ahalbidetzen du, eta hori eskatu zuen erreklamaziogileak.

Oker jasotako prestazioen itzulera baldintzak zehazteari buruzko 1/2015 zirkularrak maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 57.7 artikulua aplikazio zehatzagoa interpretatu eta garatzen du, eta aukera ezartzen du kasu batzuetan ehuneko txikiago bat aplikatzeko, hala nola Lanbidek zorra sortzeko erantzukizuna daukanean, oker jasotako kantitateen sorburua hau denean *"eragin ekonomikoaren duen aldaketa bat, Lanbideri epean jakinarazitakoa, izapidetzea, erakunde autonomo horrek jakinarazi zenetik bi hiletik gorako epe batean egindakoa"*. Inguruabar horiek betetzen badira, zirkularrak aurreikusten du zora edo haren ordainketa zatikatua % 30etik beherako ehunekoan konpentsatzea, % 20 edo % 10ean, baita hilean 30 euroko gizarte kuota ordainduz ere.





Arartekoaren ustez, kasu honetan Lanbidek erantzukizuna izan du zorra sortzean. Uste da erantzukizun hori egon dela, erakunde autonomo horrek ez duelako espediente berraztertu, interesdunak dokumentazio judiziala aurkeztu arren, zeinean gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak aipatzen baitira, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta berritzeko eskatu zuen unean bere seme-alabentzako mantenu-pentsioagatik jasotzen zuen zenbatekoa aitortu arren. **Lanbide arrazoizkoa dena baino gehiago atzeratu da diru-sarrerak bermatzeko errenta berraztertzeko, eta kontuan hartu behar zen hori sortutako zorretik hilean itzuli beharreko kopurua erabakitze orduan.**

Zorra erreklamatzeko zaion bizikidetzaren unitatea familia gurasobakar batek osatzen du, bere ardurapean bi adingabe dauzkana eta, beraz, 1/2015 Zirkularra aplikatuz, zio horregatik, zorra gehiago zatikatzea erabaki zitekeen, halako moldez non zorra hileko kuota gisa agindu baino zenbateko txikiagoan itzul zitekeen. Horrela ez zen larriagotuko familia gurasobakarraren gizarte-zailtasuneko egoera.

Nolanahi ere, Arartekoaren ustez, itzuli beharreko zorra zatikatzean ateratako zenbatekoa elementu objektiboen arabera zehaztu behar dira, bizikidetzaren unitateari bizitzeko gutxieneko bat bermatzeko xedea ziurtatzeko. Ordainketa gizarte-bazterketako egoeran dauden familietan hileko diru-sarreraren kopuru handi bat kenduz erreklamatzeko, beharrezko funtsezkoenei ezin aurre egiteko arrisku handia sortuz, objektibotasunez eta proportzioz aztertu behar da, haien gizarte-zailtasuneko egoera larriagotzea ekiditeko.

4. Hasierako informazio-eskaeran, Arartekoak adierazi zuen oso garrantzitsua dela adingabearen interes gorenari aintzat hartzea, eta Lanbideren iritzia eskatu zuen, ea adingabearen interes gorenari kontuan hartzeak zorraren ordainketari aurre egiteko hileko kopuru txikiagoa konpentsatzera eraman behar zuen. Aurrekoari bezala, Lanbidek ez zion galdera horri ere erantzun, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak — Ararteko erakundearen sortu eta arautzekoak — 23. artikuluan xedatutakoa urratuz. eskatzen zaizkien agiri, txosten edo argibide guztiak aurkezteko betebeharra du, lehentasuna emanik eta alait lasterren.

Arartekoak askotan gogoratu du aginte publikoen betebeharra, adingabearen interes gorenari kontuan hartzeko, [1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena](#)<sup>1</sup> sinatu eta berresteak dakarren betebeharrak juridiko bati erantzuten diolako, Hitzarmena Espainiako ordenamendu juridikoan jasota baitago, Espainiako Konstituzioaren 96.1 artikulua aplikatuz: *“Nazio arteko tratuak balioz*

---

<sup>1</sup> Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Berresteko Tresna. Hitzarmen hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen, 1989ko azaroaren 20an. BOE, 313 zk., 1990eko abenduaren 31koa. Hemen eskuragarri: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-1990-31312](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1990-31312)



*eginak, Espainian ofizialki argitaratuz gero, barne ordenamenduaren parte izango dira. Haien erabakiak bakar-bakarrik derogatu, aldatu edo baztertu ahal dira itun hauen arabera edo nazioarteko Zuzenbide arau orokorren arabera”.*

Adingabearen interes gorena administrazio publikoen erabakietan kontuan hartu beharreko lege-agindua da, eta hartutako erabakiaren argudioetan zehaztu behar litzateke, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren – 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena, onartu ondoren duen idazketa berrian – 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Arartekoak azpimarratu zuen diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sisteman duen eraginaren analisia [Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorrea](#), apirilaren 8koa<sup>2</sup>: *Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman*. Gomendio orokor horrek Nazio Batuen Batzordearen 2013ko maiatzaren 29ko 14. Ohar orokorra, Haurren Eskubideei buruzkoa, jaso zuen. Haren arabera, haurrak eskubidea dauka bere interes gorena funtsezko ardura izateko. Halaber, Europako Batzordearen 2013ko otsaileko Gomendioa ere jaso zuen (“Haurtzaroan inbertitzea; desabantailen zikloa haustea”).

Batzordeak azpimarratu du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes gorena:

Eskubide substantiboa: hurrek beren interes gorena lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko hainbat interes neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoak estatuek berez bete beharreko betebeharra ezarri du, berehala aplikatu beharrekoa dena (berehalako aplikagarritasuna) eta auzitegietan aipa daitekeena.

Interpreta daitekeen oinarrizko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurren interes gorena modu eraginkorrenean beteko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarritako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.

Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurrengan/haurrengan edukiko

---

<sup>2</sup> Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa. *Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman* [linean]. Hemen eskuragarri:

[http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3662\\_1.pdf](http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf)





dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Haurraren interes gorena ebaluatu eta zehazteko prozesuzko bermeak behar dira.

Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan. Zentzu horretan, erabakia hartzea dagokien instantziek azaldu egin beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurraren interes gorentzat, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola neurtu diren haurraren interesak beste gogoeta batzuen aurrean.

Konstituzio Auzitegiak, 2016ko apirilaren 24ko [116/2006 epaian](#)<sup>3</sup>, ezarri du funtsezko eskubideak, giza eskubideei buruzko tratatuen argitan *“no puede prescindir de la que, a su vez, llevan a cabo los órganos de garantía establecidos por esos mismos tratados y acuerdos internacionales”*, hala nola Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordea.

Beraz, ezin da saihestu adingabearen interes gorena lehentasunez aintzat hartzea, erakunde honek ebazpen askotan gogoratu duenez; izan ere ordena publikoko ezaugarriak dauzka, eta adingabe bat nahastuta dagoen eremu material guztiei eragiten die. Hori argitzeko epai bat aipatzen da, zinaren litisak ere prestazio ekonomikoei baitagokie, 2016ko otsailaren 12ko [epaia](#), Madrilgo Auzitegi Nagusiarena (lan-arloko sala, 1. atala4, 739/2015 erregutze-errekurtsua): *“En relación con el principio del interés superior del menor al que antes nos referimos, debe indicarse que tiene características de orden público de tal forma que los jueces y tribunales tienen necesariamente que inspirarse en él a la hora de tomar cualquier decisión que afecte a un menor. Así se deriva de los textos internacionales citados, de la sentencia *Menesson v. France*, antes referida, e igualmente del art. 3 de la Convención de los Derechos del Niño de las Naciones Unidas de 20 de noviembre de 1989 (firmada por España el 26 de junio de 1990 y ratificada el 6 de diciembre de 1990), que refiere que en todas las medidas concernientes a los niños que tomen las instituciones públicas o privadas de bienestar social, los tribunales, las autoridades administrativas o los órganos legislativos, una consideración primordial a que se atenderá será el interés superior del niño. De la misma forma la Observación General núm. 14 de las Naciones Unidas de 2013 sobre la Convención de los Derechos del niño refiere que cuando se trate de adopción así como en relación con otras cuestiones el interés superior del menor será «la consideración primordial» aclarando*

<sup>3</sup> Konstituzio Auzitegia, 2006ko apirilaren 24ko Epaia, BOE, 125. zk., 2006ko maiatzaren 26koa. [ECLIn eskuragarri: ES:TC:2006:116]

<sup>4</sup> Auzitegi Nagusia, 2016ko otsailaren 12ko Epaia. Jurisprudentzia Bilduma Ofiziala: STSJ M 1552/2016. [ECLIn eskuragarri: ES:TSJM:2016:1552]  
<http://www.poderjudicial.es/search/contenidos.action?action=contentpdf&databasematch=AN&reference=7646376&links=%22739%2F2015%22&optimize=20160421&publicinterface=true>



*expresamente que: «El interés del niño a que su interés superior sea una consideración primordial significa que los intereses del niño tienen máxima prioridad y no son una de tantas consideraciones. Por tanto, se debe conceder más importancia a lo que sea mejor para el niño».*

5. Azkenik, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2017ko azaroaren 21eko ebazpena aztertu behar da, berraztertze errekurtsoa ebazten duena; haren oinarri nagusiak gomendio honetako aurrekarietan erreproduzitu da. Ebazpenak aukerako berraztertze errekurtsoa ezesteko ematen duen argudioa da erreklamaziogileak ebazpen okerra errekurritu zuela, zorra adierazteko ebazpena, eta ez hark eragin duen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eteteko ebazpena. Arartekoaren ustez, oinarri hori ez da zuzena, errekurtso-idazkiak, sakoneko zioak ez ezik (ebazpenean esaten denez, alegatu behar ziren 2017/REV/XXX ebazpenaren kontrako berraztertze errekurtso batean), **errekurritutako ebazpenari zuzenean lotutako arazoak** ere jasotzen zituelako.

Izan ere, erreklamaziogileak, errekurtso-idazkian, alegatu zuen Lanbidek deskontua % 30ean erabaki zuela, araudiak baimentzen dion garestienez, eta argudiatzen zuen ez zegokiola ehuneko hori, berak jasotzen zituen diru-sarrerak jakinarazteko betebeharrak bete baitzituen. 2017ko azaroaren 21eko ebazpenak ez du "petitum" hori aztertu, baina Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak, errekurtsoak arautzean, berariaz aipatzen du kongruentzia-printzipioa, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 119.3 artikulua:

*"Errekurtsoa ebazten duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatuak izan edo ez. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoen gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunei. Nolanahi ere, errekurtso-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera."*

Auzitegi Gorenaren hitzetan, eduki hau dauka kongruentzia-printzipioak: *"Con carácter general, venimos considerando que «el deber de congruencia se resume en la necesaria correlación que ha de existir entre las pretensiones de las partes, teniendo en cuenta el petitum [petición] y la causa petendi [causa de pedir] y el fallo de la sentencia» (Sentencias 173/2013, de 6 de marzo). «De tal forma que para decretar si una sentencia es incongruente o no, ha de atenderse a si concede más de lo pedido ("ultra petita"), o se pronuncia sobre determinados extremos al margen de lo suplicado por las partes ("extra petita") y también si se dejan incontestadas y sin resolver algunas de las pretensiones sostenidas por las partes ("infra petita"), siempre y cuando el silencio judicial no pueda razonablemente interpretarse como desestimación tácita. Se exige por ello un proceso comparativo entre el suplico integrado en el escrito de la demanda y, en su caso, de*





*contestación a la demanda y la parte resolutive de las sentencias que deciden el pleito» (Sentencias 468/2014, de 11 de septiembre, y 375/2015, de 6 de julio" Auzitegi Gorenaren 2016ko uztailaren 01eko 450/2016 epaia, 609/2014 kasazioko eta arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsoa).*

Aukerako berraztertze errekurtsoa ebazten duen 2017ko azaroaren 21eko ebazpenak ez die erantzuten errekurtsio-idazkian adierazitako kontu guztiei eta, beraz, babesgabetasuna sortzen du.

Konstituzio Auzitegiak agerian jarri du kongruentzia-printzipioa betetzearen garrantzia, benetako babes judizialerako eskubideari lotzean: ***"A tal fin, conviene recordar que, con arreglo a reiterada jurisprudencia de este Tribunal, el derecho a la tutela judicial efectiva no se satisface exclusivamente accediendo a la jurisdicción y obteniendo una resolución judicial motivada y fundada en Derecho, sino que es necesario, además, que aquella resolución atienda sustancialmente al núcleo de las pretensiones formuladas por las partes, de suerte que ofrezca una respuesta judicial coherente con los términos del debate suscitado en el proceso (SSTC 20/1982, de 5 de mayo 369/1993, de 13 de diciembre 136/1998, de 29 de junio 9/1999 de 22 de febrero, y 96/1999, de 31 de mayo, entre otras muchas). Esta correspondencia o adecuación se quiebra en aquellos casos en que la Sentencia guarda absoluto silencio sobre elementos fundamentales de las pretensiones procesales ejercitadas, modalidad de incongruencia por omisión o «ex silentio» que puede ocasionar que la resolución judicial afectada por ese vicio, genere una no deseada denegación técnica de justicia causante de indefensión, en la medida en que no resuelve lo verdaderamente planteado en el proceso".***

Errekurtsoarene ebazpenak ez du aztertzen deskontu-portzentaje txikiagoa aplikatzea egokia denetz; aitzitik, doktrina errepikatzen du, zeinaren arabera, prestazioak erreklamatzeko prozedura jarraipen bat baino ez baita -irnotzat jotzen den aurreko berraztertzearen betearazpen moduko bat-.

Ordea, azter zitzakeen deskontu-portzentajea eta hileror zorra ordaintzeko erabili behar den kopurua; izan ere, errekurritutakoa titulu betearazle moduko bat bazen, instantzia administratibo horri dagokio zorra ordaintzeko hileror itzuli beharreko kopuruari buruzko ebazpena.

6. Laburbilduz, Arartekoaren ustez, ebazpen honetan aztertutako inguruabarrek bidea ematen dute ulertzeko Lanbideren erantzukizuna egon zela zorra sortzean eta, beraz, posible litzatekeela deskontu-portzentaje txikiago bat eta zatikatze handiago bat aplikatzea oker jasotako prestazioen itzuleran, proportzionaltasun-printzipioa (urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubidearena, 4. artikulua) eta adingabearen interes gorenaren kontuan hartuz.





Aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenak ez du betetzen kongruentzia-printzipioa eta, beraz, erakunde honen ustez, berraztertu behar da.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak gomendatzen du oker jasotako prestazioak itzuli beharra eta haien zatikatzea ebatzi dituen ebazpena berraztertzea, gizarte kuotaren bidez edo, subsidiarioki, hileko deskontuko edo, hala balegokio, hileko ordainketako portzentaje txikiago baten bidez itzultzea erabakitzeko, uste baitu Lanbidek erantzukizuna izan duela zorra sortzean, oker jasotako prestazioen itzulera baldintzak zehazteari buruzko 1/2015 zirkularrak aurreikusten duenez, eta adingabearen interes gorena aintzat hartuz.

